



MIREN AZKARATE Kultura sailburuak gidatzen duen sailaren datozen lau urteetarako asmoen berri eman zuen atzo. GORKA AYESTARAN / EFE

MIREN AZKARATE

(Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailburua)

«Arteen eta Kultur Industrien Institutua sortzeak izan ditzakeen ondorioak ikusi behar ditugu»

«Kulturaren Euskal Kontseiluak gogoetaren motor izaten jarraituko du»

«Liburutegien Legea lehen zirriborrotik asko aldatu da, adostasuna lortzeko»

«Urtero film bat edo bi euskaraz ekoitzi ahal izatea da sailaren borondatea»

Euskadiko Liburutegia eta Agiritegia sortuko ditu Jaurlaritzak legealdion

Arteen eta Kultur Industrien Institutua abian jartzeak izango lukeen eragina aztertzen hasiko da Kultura Saila

IVAN SANTAMARIA - GASTEIZ

Eztabaidak eta hausnarketa estrategikoak funts izan zituen legealdi baten ondotik, kultur politikan teorizatutakoa praktikan jartzeko ordua dela uste du Eusko Jaurlaritzak. Behin Kulturaren Euskal Plana onartuta, egitasmoan zirriboratu ziren proiektuak gorpuztuko dira hasi berri diren legealdian. Batez ere, hiru azpiegitura garatuko ditu Kultura departamentuak: Euskadiko Liburutegia, Agiritegia eta Filmategia.

Miren Azkarate Kultura sailburuak zuzentzen duen sailak datozen lau urteetarako dituen lan ildo nagusiak azaldu zituen, atzo, Eusko Legebiltzarrean. Oro har, aurreko legealdian finaturiko xedeak aurrera eramaten ahaileginduko direla adierazi zuten Azkaratek legebiltzarkide-

ei. Horien artean daude Agiritegia, Liburutegia eta Filmategia. Hala ere, ez zuen aurreratu nola ezaugarriak izango dituzten, ezta non kokatuko diren ere.

Tresna berriak martxan jarri nahi ditu Eusko Jaurlaritzak. Garrantzitsuena, Azkarateren ustez, Kulturaren Euskal Behatokia izan beharko litzateke. «Erakunde guztien esku egon daitekeen behatoki eredu bat nola garatu aztertzen aritu gara», azaldu zuen. Fruituak, hortaz, aurki espero dituzte, sailburuak epe jakinik jarri ez zuen arren.

Aurreko legealditik indarrean dagoen beste erakunde batek, Kulturaren Kontseiluak, lanean segiko du, eta kultur politikaren inguruko gogoetaren «motorea» izango da. Horrekin batera erakundeen arteko koordinazio batzordea indartuko dute.

Aurki, halaber, Arteen eta Kultur Industrien Institutu bat beharrezkoa den edo ez erabakitzeke hausnarketa abiatu nahi du Kultura Sailak. Lehenik eta behin, halako erakunde batek izan behar dituen zereginak aztertu nahi ditu departamentuak, sortu edo ez erabaki aurretik. «Sortzea bideragarria den, eta industriarako edo ematen diren dirulaguntzak kudeatzeko orduan izan ditzakeen ondorioak ikusi beharko dira», Azkarateren iritziz. Aurtun eta datorren urtean sektoreekin eztabaidatuko dutela aurreratu zuen.

Museoen eta Liburutegien Lege proiektuak, gertu

Kulturaren Euskal Planak agindutakoaren bidetik, hainbat alor lege bidez arautuko du Jaurlaritzak. Museoen Legea aurreko legealditik du zintzilik, ganbera desegin eta onartu gabe geratu baitzen. Horri laster Liburutegien Legea gehituko zaio. Sailburuak jakinarazi zuenez, departamentuak dagoeneko ia prest du aurreproiektu zirriboro-

rra, Gobernu Kontseiluak onartu eta Legebiltzarrean noiz aurkeztu zain.

Hirugarren bat ere prestatzen ari da departamentua: Agiritegien Legea. Liburutegien Legearekin eginiko antzeko prozesua izango du araudi horrek. Izan ere, erakunde sare zabal batek du eskumena, eta adostu beharko dute praktikan nola islatu.

Legeak zehazteko erakunde guztiek parte hartu dutela nabarmendu zuen Azkaratek. «Eztabaida luzeak egon dira. Esaterako, Liburutegien Legea lehen zirriborrotik nabarmen aldatu da adostasuna lortzeko». Agiritegien Legean ere alegazioak jartzeko epea izango da.

Ondareari dagokionez, babeserako neurriak sustatzen jarraituko da, eta arreta berezia eskainiko zaio industria ondareari eta baserriari. Azkaratek onartu zuen ondareerako dirua ez dela oraindik iritsi aurrekontuen %1era, baina «nahiko hurbil» dagoela defendatu zuen.

Urtero euskarazko film bat edo bi ekoizteko borondatea du, gainera, Eusko Jaurlaritzak.

Kultur azpiegitura plana 2004-2007

- » Arabako Arkeologia Museoa
- » Bilboko Itsas Museoa
- » Cristobal Balenciaga Museoa
- » Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa (CICC)
- » Ekaingo haizularen erreplika-museoa (Ekain-berri)
- » Euskadiko Artxiboa
- » Euskadiko Biblioteka
- » Euskadiko Filmategia
- » Euskadiko Kirol Federazioaren Gasteizko egoitza (Mendizorrotza)
- » Gasteizko Kongresu eta Musika Jauregia
- » Gasteizko Andre Mari Katedralaren birgaitzea
- » Insausti Jauregia
- » Ipupomamua Asteasu (Haur eta gazte literaturaren gunea)
- » Legutianoko Kirol Hobekuntza Zentroa
- » Mintzola Villabona (ahozkotasunaren gunea)
- » Urdanibia jauregia
- » Valle salado, Añanako gatzaga birgaitzea